



FUNTSEZKO JARDUERA



Balder Plaka produktu konplexu eta berri bat denez, zehaztazun osoz sortu eta diseinatu behar da. Horregatik hemen azalduko dizuegu prozesua.

Lehenik eta behin, gure produktuak helburu konkretu batzuk ditu, temperatura eta argia erregulatzea, esate baterako. Ondorioz, baldintza hauek betetzen dituzten materialak/osagaiak aukeratu eta erosi behar ditugu. Materialak Indio-oxidoaren eztainua, Polietileno tereftalatoa, Polimero sakabanatua, kristal likidozko partikulak eta Kobre eroalearen tira bat dira eta *Alibaba* enpresari erosiko dizkiogu, handizkako salmenta egiten baitituzte.

MATERIALA	
Indio-oxidoaren eztainua	

Polietileno tereftalatoa



Polimero sakabanatua



kristal likidozko partikulak



Kobre eroalearen tira



Enpresa guztietan bezala, bezeroak enpresaren motorra dira, beraz, gure produktua ezagutzeko eta lortzeko erraztasunak eskani nahi izan ditugu. Horretarako webgune bat sortu dugu; bertan, produktuaren ezaugarriak, erabilpena, prezioa, nola erosi, muntaketa, enpresaren ezaugarriak eta ingurumenarekiko duen erlazioa azalduko da.

Gure produktuaren ezaugarri bat bazero bakoitzaren premia aseaten duen diseinua sortzea da, beraz, gure kolaboratzaileak bezeroen etxeetara joaten dira neurriak hartzera. Ondoren, enpresaren gmaileara bidaltzen dute beharrezkoa den informazio guztia. Horri esker, guk, enpresan plaken sorkuntzarekin hasi dezakegu.

Ondoren, plaka bakoitza diseinatu eta osagaien kantitatea zeazten ditugu. Gero kontratatu ditugun enplegatuek, beiragile profesionalak, materialak galdatu, forma eman eta plaka sortu egingo dute. Azken pausoa, plaka Seur enpresaren bidez bere helmugara eramatea izango zen; han gure kolaboratzaileek bezeroaren etxean plaka muntatuko dute.

My Bussines enpresarako oso garrantzitsua eta beharrezkoa da kolaboratzaile egokiak eta prestatuak edukitzea, ondorioz, enpresan bertan gure kolaboratzaile bakoitzari formakuntza saio pare bat ematen diogu. Izan ere, haiek izango dira neurriak hartu eta xafla montatuko dutenak.



Azken urratsa mandoa eta aplikazioa sortzea da. Produktu hauek plakarekin datozte eta distantziatik kontrolatzeko balio du.

